

172. FITXA Udal-titulartasuneko musika-ikastegiak finantzatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Udal titulartasuna duten musika-eskolak, udal titulartasuna duten kontserbatorioak, musika-irakaskuntzako ikastetxeen titularrak diren toki-erakundeak.

Sarbide-esteka: [Udal musika-ikastegientzako dirulaguntzen deialdia \(2025\). - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita udal-titulartasuneko musika-ikastegiak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.](#)

Eremuak: Hezkuntza

Zenbatekoa: 13.800.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/23

Laburpena

Dirulaguntza hauen helburua da, hain zuzen ere udal-titulartasuneko kontserbatorioek (**musika-irakaskuntza arautuak**, bai oinarritzakoak bai profesionalak, ematen dituztenek) eta udal musika-eskolek (maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak arautuek) 2024-2025 ikasturtean dituzten kostuak finantzatzen laguntzea.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Langile-kostuak:

- Langile-gastuak honela zehaztuko dira: kostu gordina, gizarte-segurantzak, eta beste batzuk (beste aseguru batzuk).
- Beste erakunde batzuetan ere ari diren irakasleak ez diren langileen kostuak proportzioan kalkulatuko dira, musika-eskoletan duten dedikazioa soilik kontuan hartuz.
- Zuzendaritza-lanen gastuak irakasleak ez diren langileen gastutzat hartuko dira.

Funtzionamendu-gastuak:

- Azpiegiturak eta tresna teknologikoak mantentzeko, konpontzeko eta kontserbatzeko gastuak.

- Garbiketa-gastuak.
- Zerbitzuak: elektrizitatea, ura, gasa.
- Aholkularitza-gastuak, zerbitzu juridikoenak.
- Eskolaren aseguruak.
- Ezohiko jardueren bidaia-gastuak: joan-etorriak, mantenua, dietak.
- Marketin- eta publizitate-gastuak.
- Ustekabeko gastuak: konponketak, istripuak.
- Langileen kontratazioa kudeatzeari lotutako gastuak (azpikontratak edo kudeaketa-gastuak) funtzionamendu-gastutzat hartuko dira, eta ez langile-gastutzat.
- Irakasleen prestakuntzaren gastuak funtzionamendu-gastutzat hartuko dira.
- Musika eskolak sortu bai baina bere gain hartzen ez dituen kostuak beste erakunde batzuek diruz lagundutako gastutzat hartuko dira, eta beste laguntza batzuen apartatuan sartu beharko dira.
- Musika-eskolak beste erakunde batzuekin partekatzen baditu instalazioak, instalazioen erabileraren proportzioan kalkulatuko dira gastuak (guztizkoaren %).

Ekipamendu-gastuak:

- Bulegoko materiala. Material suntsikorra eta suntsiezina.
- Altzariak.
- Erabileratik eta zaintzatik eratorritako tresnak eta materialak.
- Material didaktikoa: inprimatua, ikus-entzunezkoa eta multimedia.